



OROKORTASUNAK

Orixen BHI ESKOLA HEZKIDETZAILEA bihurtu nahian, Hezkidetzan oinarritutako eskola baten bidean gaudenez, hona hemen geure hausnarketa, genero-ikuspegia ikastetxeetako kultura eta praktikan sartuz, planteamendu integral baten bidez. Bat egiten dugu Plan orokor honek duen misioarekin:

“Plan hau landu da hezkidetzazko eskola-eredu bat bermatzeko, sexuaren arabera estereotipoak eta rolak alboratuta pertsonen garapen integralean oinarrituko dena; ikasleak era guztietako bazterkeria eta genero-indarkeriaren gaitzespenean heziko dituen, eta orientazio akademiko eta profesional ez-sexista eskainiko duena, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien partaidetzaz eta inplikazioaz”.

Gure institutuko jardunean egon daitezkeen genero-desberdintasunak desagertzeko plana eratzera gatoz, eskola-komunitate osoaren atxikimendua lortuz. Genero-indarkeria prebenituz, kasuak lehenbailehen detektatuz eta indarkeria hori jasaten duten biktimei arreta egokia emanez.

AURRETIKOAK

Gai hau ez da guregan berria. Hain zuzen ere, duela 15-16 urte hasi ginen, prestakuntza jaso eta gero, lantzen. Horretarako, Emakundek argitaratu zuen materialaz baliatu ginen: “TRATU TXARRARI AURREA HARTUZ” (1995) izeneko liburua eta beren modulu didaktikoak (Neli Zaitegi eta Margarita Amigok sortuak).

Orientazio arloan ere, “Bideak egiten”, “Programa coeducativo de orientación académica para la educación secundaria) Pilar Echazarretak eta besteek (1999) prestatu zutena tutoretzan erabiltzen hasi ginen, gaur egun programan sartuta egonez.

Irakaskuntza mistotik hezkidetzaille baterantz goaz eta gure desioa, egin duguna eta egiten ari garena batu, integratu eta ofizialtasuna lortzea da.



Orientazio eta Tutoretza arloetatik jardun orokorrera, prebentzio hutsaren ikuspuntutik berdintasunaren normaltasunera joan nahi dugu. Eragile guztiak (orientatzaileak, tutoreak, irakasleak, gurasoak, jangelako begiraleak, familiak eta abar) batera arituz, behar ditugun prestakuntza eta hausnarketa eginez, proposamen zehatzak eginez, hala nola kudeatze dokumentuak hezkidetzaren ikuspegitik berraztertuz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP), Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), Antolamendu eta Jarduera Araudia (AJA), Ikastetxearen Urteko Plana (IUP) eta abar.

Era berean, hezkuntza afektibo sexual arloan daramatzagun programetan genero-ikuspegian sakondu nahi dugu.

- **Planteamendu integral batean, irakasleen aldetik azterketak:** curriculumarena (androzentrismoaren nagusitasuna ekiditearren), ikasmaterialarena eta ebaluazio-probena (estereotipoak detektatzearren).
- **Eskolako espazioen erabilerarena** (patioen okupazioa, adibidez).
- **Aniztasunari erantzunez:** arrakasta eta porrot eskolarra aztertzerakoan genero-ikuspegia sartzea.
- **Diziplina (bullying kasuetan ere) eta errendimenduan genero-ereduek duten garrantzia** (bitxia da gure DBH2ko ikasleen artean, Hezkidetzaren programan ikusi dugun bezala, gertatzen dena: nesken presentzia amaitzen denean, mutilek sentitzen duten lasaitasuna izugarria da, maskulinitate-eredua pisutsuegia baita gehienentzat).
- **Mikroindarkeriak.** Indarkeria mota horrek murriztu egiten ditu botere pertsonala, autonomia, askatasuna, nesken auto-estimua, eta maskulinitate tradizionalerako mandatua betetzen ez duten mutilen auto-estimua. Gainera, inolako erantzukizunik gabe egiten dira.
- **Berdin gertatzen da familiekin:** hauek ere seme-alabekiko jarrerara eta jarduna azertu behar dituzte. Familiak horretarako prestatu behar direlakoan gaude.


Ikastetxean hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko ikastetxeak aurrera eramanean duen hezkuntza-jarduketaren laburpena

Ondoko hauek dira, azken ikasturteetan Orixen BHI programaturik eta Urteko Planaren barruan jasota izan ditugun jarduerak nagusiak:

- Kanpoko hezitzaileekin programak Orixen:
 - 12-13 eta 13-14 ikasturteetan Tolosako udalaren "Hezkidetzaren emozionala lantzeko egitasmo integrala" programa Harremanak elkartearren bidez. Ikusi eranskina. Ikasleekin urte bakoitzean egindakoa:
 - DBH2n 6na ordu aipaturiko hezitzaileekin
 - DBH4ean 4na ordu
 - Batxilergoko 2. mailan 4na ordu
 - ZIG gelan 2 ordu

Honetaz gain irakasleentzako eta gurasoentzako formazio saioak

- 94-95 ikasturtean hasita, Laha-Nahia Sexologia Elkarteak, DBHko 3. mailako eta batxilergoko 1. mailako taldeetan sexu heziketa landu du ikasturtero genero ikuspegitik. 07-08, 08-09 eta 11-12 ikasturteetan, aurrekoaz gain, Foru Aldundiak eta Genero-indarkeriaren biktimeen arretarako zuzendaritzak diruz lagundurik, genero-indarkeriaren prebentziorako programa landu zuten.
 - Tolosako Josebe Iturriotz udal berdintasun-teknikariaren esku-hartzea batxilergoko ikasleekin.
 - 11-12 ikasturtean DBHko 3. eta 4. mailako taldeekin, eta orduz geroztik 3. mailakoekin, "Hitz egin dezagun homosexualitateaz programa" GEHITU elkartearen bidez.
 - DBH4ko taldeetan "Kalean uso eta etxean otso" genero-bortizkeriarako programa 11-12 ikasturtean KUTXaren bidez.
- TUTORETZA PROGRAMAn programaturik ditugun saioak: Saio hauek tutoreek DBHko tutoretza orduetan burutzen dituzte.
- DBH1: "Martxoaren 8a: Nola banatzen ditugu etxeko lanak?" deituriko saioan berdintasuna eta etxeko lanen banaketa lantzen dira, Eusko Jaurlaritzaren materialak erabiliz: **Bideak egiten "Programa coeducativo de orientación académica para la educación secundaria) (KOADERNOA) Pilar Echazarreta eta besteak (1999)**
 - DBH2:
 - "Martxoaren 8a: emakumea eta lan-mundua" Eusko Jaurlaritzaren materialak erabiliz: **Bideak egiten "Programa coeducativo de orientación académica para la educación secundaria) (KOADERNOA) Pilar Echazarreta eta besteak (1999)**
 - "Nerabea eta irudi fisikoa"
 - DBH3: Azaroaren 25a: "+ es -" eta Beldur Barik programetako materialak erabiliz.
 - DBH4:
 - Azaroaren 25a: "+ es -" eta Beldur Barik programetako materialak erabiliz.
 - "Deskonekta zaitetz tratu txarretatik" materiala
- LANBIDE ORIENTAZIO PROGRAMAKo saioak: Saio hauek orientatzaileek eta tutoreek lantzen dituzte genero ikuspegitik DBH eta batxilergoko maila guztietan. Honetaz gain gurasoekin informazio saioak burutzen ditugu. Arreta berezia ondokoetan jartzen dugu:
- Estereotipoen eragina azaltzea
 - Norbere gaitasun eta interesen arabera hautaketa egitera animatzea
- Kanpoko programak
- Tolosako udalaren "Inauterietan tratu txarrik ez" kanpaina





GAUR EGUN

Aurtengo ikasturtean (2013-14) aurreko lanarekin jarraitzeko asmoz, Hezkuntzako sailburuordeak ateratako "hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari heltzeko jarduketa-proiektua egiteko deialdian" parte hartu du eta ikastetxe askoren artean aukeratua izan da. Beraz orain hiru urte ditugu (2013-2014, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteak) "**Hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko plana**" egiteko.

Plan hau lantzerakoan orain arte egindako guztia bilduko dugu eta jarduerak estamentu (guraso, ikasle, irakasle, langile ...) guztietara zabaltzea ezinbestekoa ikusten dugu.

Plana gauzatzeak hirufase izango ditu. Lehenengoa sensibilizazioa, ondoren diagnostikoa eta azkenik planaren diseinua.


Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko planaren helburuak:

1. "Hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzazko eskola-eredua era koordinatuan bultzateko egiturez eta pertsonen":

Eskolan egiten diren hezkidetzaren ekintzak aztertu eta antolatu. Horretarako, Elkarbizitza behatokia eta Organo Gorenean parte hartu.

2. "Eskola mistoan eraldaketa-prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskola baterantz joateko": Hezkidetzaren plana egin eta urteko planean sartu.

3. "Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea": Genero indarkeriak detektatu eta erantzun egokia emateko gure ikastetxea prestatu.



Hezkidetzaren inguruko legeak:

- ▶ Otsailaren 19ko 1/1993 legeak: "...ematen den **heziketaren hezkidetasuna ziurtatzea**
- ▶ Otsailaren 18ko 4/2005 legeak: "..... **generoak behartu gabeko orientazio akademiko** eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrear.
- ▶ Otsailaren 18ko 4/2005 legeak, "...Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta **hezkidetzeta-helburuak integratuko ditu** hezkuntzako maila ezberdinetako jakintz-arloetako eta diziplinetako **curriculumaren** diseinuan eta garapenean."

Gue ikastexean Hezkidetzeta planaren barnean egin beharreko lanak:

1. Ikasturte honetan jarduketa-plana diseinatu, gero 3 urtetan martxan jartzeko. Urteko planean txertatu.
2. Ikastexeko hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko arduraduna identifikatu.
3. Berdintasun-ordezkaria izendatu (OOG-k)
4. Berdintasun batzordea, elkarbizitza behatokian txertatu.
5. Formazio saioetan parte hartu

Zer baliabide lortu ditugu:

1. Berritzegunearen zuzeneko aholkularitza.
2. Prestakuntza
3. Material didaktikoa.

